



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-07-24**

VIII. URTEA 2.060. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Lehiberri martxan jartzeko milioi bat euroko ekarpena bermatu dute

TOLOSA Jokin Bildarratz, Tolosako alkateak, eta Felipe Petriz, Ikerketako Estatu Idazkariak, sinatu dute hitzarmena

EKONOMIA Tolosaldeko Lehiakortasunerako eta Berrikuntzarako Zentroa aurten hasiko dira eraikitzen z



Hitzarmenaren sinatze ekitaldian eskualdeko hiru udaletako ordezkariak Estatu Idazkariarekin. A. IMAZ

Gaur hasiko dira Santio jaiak Villabonan

AISIALDIA Jaien hasierako txupinazoa Eresargi Abesbatzako kideek botako dute 12:00etan 4-5

JOSE ANGEL IRIGARAY IDAZLEA

«Herriarengana gehien hurbiltzen dena kantagintza da»

VILLABONA 'Ahoa bete hots' jardunaldietan hitzaldia eskainiko du iruindarrak; sorkuntzaren ikuspuntutik azken hamarkadak aztertuko ditu 7

Jaiak bizi eta gozatu!
Ez daudenak gogoan hartu!





Aitor Sarasola, Alegiako alkatea, Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea, Felipe Petriz, Estatu Idazkaria, eta Iñaki Amenabar, Asteasuko alkatea. A. IMAZ

Lehiberri martxan jartzeko milioi bat euroko hitzarmena sinatu dute

Tolosa » Lehen fasearekin urtearen amaieran hasiko dira eta 2012. urtean zehar erabiltzen hastea aurreikusita dago.

ERREDAKZIOA

Atzoko egunez, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Felipe Petriz Ikerketako Espainiako Estatu Idazkariak, Lehiberri, Tolosaldeko Lehiakortasunerako eta Berrikuntzarako Zentroa, eraikitzen hasteko hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen bidez Tolosako Udalak milioi bat euro jasoko du Zientzia eta Berrikuntza Ministeriotik, «instalakuntza berriaren eraikitze, pertsonal eta ekipatze gastuei aurre egiteko».

Tolosako sinatze ekitaldian Aitor Sarasola, Alegiako alkatea, eta

Iñaki Amenabar, Asteasuko alkatea, egon ziren.

Lehiberri bere jardueraren martxan jartzen duenean, protagonisten esanetan, «Tolosaldeko eragile sozioekonomiko guztien erreferentzia zentroa bilakatuko da». Bere helburua «enpresen proiektuen lehiakortasuna hobetzea izango da, lankidetzeta eta berrikuntzaren bitartez. Ez da zentro teknologiko bat izango, baizik eta Tolosaldeko enpresen garapenerako, formakuntzarako eta topagunerako gunea, eta, aldi berean, eskualdeko behatoki sozioekonomiko gisa jardungo du».

Oinarriak

Lehiberri hiru zutabetan oinarrituko da: enpresak sortzea, formakuntza eta lankidetzeta bultzatuko ditu. «Enpresak sortzea sustatzea, zentroak enpresen hazitegia

izango du, non sustatzaileek euren proiektu berritzaileak garatu, eta, aldi berean, beste enpresari berri eta eskualdeko eragile ekonomikoekin harremanak izan ditzaketen». Helburua enpresei hastapenetik sustrai sendoak errotu ditzaten aukerak ematea dela azaldu zuten.

Formakuntzaren arloan, «eskualdeko enpresariak kudeaketa industrialeko teknika berrienetara hurbilduko dituzten kudeaketa aurreratuko formakuntza gelak izango dituen lehenengo zentroa Lehiberri izango da». Halaber, formakuntza gela hauek Euskadiko Zentro Teknologikoei kiko zubi lana egiteko ardura izango dute.

Lankidetzeta errazteko Lehiberri enpresen arteko laborategiak jarriko ditu martxan, «bakarka bideragarriak izango ez liratekeen proiektuak elkarlanean burutu

ahal izateko. Enpresen eskura egongo dira sektoreen arteko, prototipo eta produktuen garapenerako laborategiak».

Hauetz gain, zentroan bertan enpresen arteko jardunaldiak eta seminarioak ospatzeko areto bat izango da, eta Tolosaldea Garatzenen bulegoak ere bertan kokatuko dira.

Proiektuaren aurrekontua

Eraikitze lanaren lehenengo faseak 1.592.886 euroko inbertsioa izango du, hauetatik milioi bat euro Estatu Aurrekontu Orokorretatik lortu da, eta gainontzekoa eskualdeko udal txeen eta Tolosaldea Garatzenen ekarpenen bitartez. Eraikitze lanak orotara 3,58 milioi euroko kostua izango du.

Tolosaldeko Lehiakortasunerako eta Berrikuntzarako Zentro be-

» TOLOSALDEA

Biztanleak

Herritarrak	45.471
Gizonezkoak	22.999
Emakumezkoak	22.472
<15 urte	%15
15-64 urte	%68

Langabezia

Herritarrak lanean	21.223
Langabezia	2.435
Langabetuak, gizonak	1.159
Langabetuak, emakumeak	1.276

Sare industriala

Establezimendu kopurua	4.125
<10 langile	%92,2
10-49 langile	%6,7
>50 langile	%1,1

Langileak sektoreka

Industria eta energia	%44,8
Eraikuntza	%9
Komertzioa, ostalaritza...	%23,8
Banketxe, aseguruak...	%5,4
Besteak	%17,1

rriaren eraikitze lanak urteko azken hiruhilekoan hasiko dira, eta 2012. urtean zehar erabiltzen hastea aurreikusita dago.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

AMPLIADA DISTRIBUCIÓN - 90491 LEZARU
Tel. Fax: 943 673 499
Tel. Mób.: 689 805 633

AUKERA HANDIA ETA GLIZIA

400

Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULANGINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko Plaza.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

II. Mailako Euskadiko Aizkora txapelketa abian da

Leitza » Eskualdeko bakarra ariko da lehian, Arkaitz Olano; Elizondon, bihar arratsaldean izango da lehen kanporaketa.



lax Jon Rekondok irabazi zuen. HITZA

ERREDAKZIOA

Bigarren Mailako Euskadiko Aizkora txapelketako lehen kanporaketa jokatu da bihar Elizondon (Nafarroa), 19:30ean. Maila Nagusia igotzeko bideari ekingo diote bertan lehiatuko diren aizkolariek. Saio honetan 12 aizkolariko ariko dira, eta lehenengo sei sailkatuete lortuko dute finalerako txartela.

Aizkolariei dagokienez, guztira hamalau aizkolariko dira II. Mailan, 2010ean, eta denek dute kanporaketa jokatzeko aukera, baina Daniel Vicentek eta Joxejuan Barberen esku ez hartzea erabaki zuten. Hortaz, 12 aizkolarik hartuko dute parte, eta lau aizkolariko hiru txandatan banatuta ariko dira. Berrezitasun gisa esan behar da, Mugerza aita-semeak ariko direla saioan; hots, aita Fausto, eta, Ugaitz eta Aratz semeak. Horrez gain, aizkolariko guztiak Nafarroa Garaikoak (bost) eta Gipuzkoakoak (zazpi) dira. Hauek ondorengo

lana egin beharko dute: kanaerdiko hiru enbor (54 ontza), 60 ontzako enbor bat eta oimbiko enbor bat (72 ontza).

Biharkoan ariko diren artean, Mindegia, Telletxea, Fausto Mugerza, Aranberri, Erasun, Kañameres, Ugarteburu eta Aratz Mugerza izan ziren iaz. Jexuxmari Lasak ez zuen kanporaketa jokatzetik izan, min hartuta zegoelako. Olano, Larretxea eta Ugaitz Mugerza III. Mailatik igo ziren, hurrenker horretan sailkatuta.

V. Laukarizko harria

Azken lau urteotan bezalatsu, larunbatean jokatu da Laukarizko harria Txapelketa, Laukarizen (Mungia, Bizkaia). 134 kiloko pi-

» PARTE-HARTZAILEAK

- Arkaitz Olano (Leitza).
- Manuel Kañameres (Aroztegi).
- Xabier Mindegia (Beintza Labaien).
- Ander Erasun (Aurtiz, Ituren).
- Oihan Larretxea (Bera).
- Jexuxmari Las (Legorreta).
- Fausto Mugerza (Mutriku).
- Aratz Mugerza (Mutriku).
- Ugaitz Mugerza (Mutriku).
- Joxemari Teietxea (Oiarzun).
- Fausto Mugerza (Mutriku).
- Joxe Ugarteburu (Ezkio-Itaso).
- Javier Aranberri (Elorriaga).

sua du Laukarizko harriak, eta harribaldar eta trakets horietakoa da.

19:30ean hasiko dasaioa eta parte-hartzaileak bost minutuko txanda bakarrean, ahalik eta jasaldi gehien egiten saiatuko dira, 134 kiloko harribaldarrari.

Hamahiru harri-jasotzaile ariko dira lehian, horien artean eskualdeko bat, Josetxo Urrutia leitza-rra.

Iaz *Izeta II*.ak irabazi zuen, 20 jasaldi eginda. Horrenbestez, Aiako harri-jasotzaileak txapelketako marka ondu zuen, eta laugarren urtez jantzi txapela

G Gutunak

Eli Nosellasi erantzuna

Udalbatzak ondokoa adierazi nahi dio Elixabete Nosellas, Alurr Dantza taldeko lehendakariari. Alde batetik, Ordenantzak Ohiko bilkuran onartu ziren eta ez dekretu bidez, zuk diozun bezala.

Bestetik, Zergatik axola dizu hainbeste Ibarrek bere ordenantzak izatea? Zergatik isiltzen duzu Ibarrek udalak 2009 urtean 16.177,49 euro eman zizkiola Alurr dantza taldeari edo 1.000 euro 2010 urtean Dantzari Eguna zela eta, edo Azkue kaleko lokalagatik 1.913 euro ordaintzen duela, bere ur, argindar... gastu eta guzti. Zer lortu nahi duzu hainbeste engainarekin, begirada Udalera desbideratzea eta inork ez jakitea Ibarren dena izan duzula, dirua eta azpiegitura?

Alurreko eskoletarako matrikulak direla eta, kobratzen dena, 250 ikasle bider 135 euro. Ez zaizu iruditzen zeu zarela azalpenak eman behar dituen? Zergatik dira hain garesti matrikulak Ibarren eta eskualdean ez hainbeste?

Elixabete Nosellas, argia izan behar duzu erakundeekiko eta diru-sarrerak nahiz gastuak behar bezala aurkeztu. Ez dago eskualdean beste talde bat hainbeste jaso eta hainbeste kritikaz duenik, inolako arrazoirik gabe.

Herritarren batek hemen aipatu diren datu ofizialen egiazkotasunaren inguruan zalantzarik izatekotan, Alkatetzarekin edo Ibarrek Udaleko Kultura Departamentuko Lehendakitzarekin harremanetan jarri dadin gonbidatu nahi dugu.

Ibarrek Udalbatza. Ibarra.

Laburrak

Gaur, Joxean Tolosa Txapelketan, aldaketak

AMEZKETA Joxean Tolosa Pilota Txapelketaren baitan gaur gauera jokatu diren partidetan azken orduko aldaketa bat izan da. Kadeteetako lehenengo partidari, Nazabalek ezin izango du jokatu. Gauzak honela, Andueza izango da Nazabal ordezkatzeko hautatu duten pilotaria, eta Hernandorenaren aurka jokatu beharko du. Aipatzeko da, Andueza gaztea Andueza V.a profesionalaren semea dela.

Tolosa CFren paletako partidak atzeratu dituzte

TOLOSA Azken egunetako eguraldi txarra dela eta, Tolosa CFk antolatutako Paleta Txapelketako finalerdiak atzeratu egin behar izan dira. Ondorioz, finalak ere atzeratu dira. Hau izango da beraz, txapelketaren egutegi berria: Finalerdiak datorren asteartean jokatu dira, (Otermin eta Urdanpilleta, Karre- eta Izagirrearen aurka izango dira lehen partiduan, eta Lontxo eta Nazabal Yugueros eta Aldazabalen aurka bigarrenetan); finalak aldiz ostiralean, hilaren 30ean, jokatu dira, astearteko finalerdietan sailkatutako bikoteekin, noski.

Etzirako batzorde bilera deitu du Udalak

AMEZKETA Etzi 20:30ean jarri du hitzordua herriko alkateak, eta helburua, hirigintza zein obra, kultura eta ingurumena batzordeak bertan bilteza da. Pleno aretoan elkartuko dira, besteak beste, ondorengo gaiak jorratzeko: obra txikiak; haurren txokoaren eskaeren dute pilotaria, eta Hernandorenaren aurka jokatu beharko du. Aipatzeko da, Andueza gaztea Andueza V.a profesionalaren semea dela.

Balkoi onenak bozkatzeko garaia iritsi da jada

BERASTEGI Irekia dago, leiho, balkoi eta terraza hobereana bozkatzeko epea. Internetez egin nahi duenak, bihar izango du horretarako azken aukera. Astelehenean aurrera berriz, lorategien garaia izango da. Azkenik, abuztuaren 1ean, baratzen bozketak hasiko da. Webguneke Fototekan zintzilikatuak daude partehartzaileen argazkiak. Lore eta jardinen emaitzak abuztuaren 6ko herri afari ostean jakingo dira. Kontutan izango dira, antolatzaile eta lore teknika-rien irizpidiak. Baita Internet bidez, Udaletxean eta Gaztainondoz bozkatzen diren emaitzak ere.



Prest dago asteleheneko konpartsa

VILLABONA Hilaren 2lean izan zen azken entsegua, eta datorren astelehenera arte itxaron beharko da Villabonako konpartsa berezi hau ikusteko jaien baitan. Aurtengoa sorpresa hutsa izango da, danborrada eta konpartsa uztartu baitira, emaitza polit eta dibertigarriekin. Argazkia ikusi besterik ez da, hasiera bateko

idea eroak animatutako jendea asko izan dela ikusteko. Honela, 150 lagun inguru aterako dira Santa Ana egunean kalera, danborra soinean baina dantzarako nagirik gabe. Antolatzaileek azaldu moduan, «ondo pasatzea da aurtengo konpartsaaren helburua», eta entsegua ikusirik, ez dira urrun ibiliko. OIHANAIGUARAN

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

SALGAI

■ **Arropak.** Bizikletan ibiltzeko arropak salgai (kamisetak, kulotak, txaketak...) Euskaltel markakoak. Oso berriak. XXL neurrikoak. Interesatuek deitu 637 94 80 12ra.

ALOKAIRUA

■ **Baserria edo borda.** Eskualdean

baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu 634 45 9110 telefono zenbakira.

BESTELAKOAK

■ **Zakurrak.** Zakur kumeak oparitzen ditut. Hernalde. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 678 61 83 30.

Eguerdian lehertuko den suziritik San Inazioetara, bada non aukeratua

Villabona » 35. urteurrena dela eta, txupinazioa Eresargi Abesbatzako kideek botako dute. Astearteat zeduen eguna izango da.



Iaz bezala aurten ere, txupinazioaren ostean, baranga izango da. GARAIA

ENERGIAMAZ
Gaur eguerdian lehertuko da, aste-betez luzatuko den festa Villabonan. Aurten, txupinazioa jaurtzeakoa lana, Eresargi Abesbatzako kideena izango da. 35 urte bete dituzte eta Udala ondezkariek berri-berri eman diete festei hasiera emateko aukera.

Krisia dela eta, astearteat zeduen eguna izango da eta beste egunetarako egitaraua oporara prestatu dute. Gaur, txupinazioaren ostean, Iraunkorrek txaranga izango da eta guzurik batetik klustara joango dira. Batetik, aurtengo berrikuntzarako bat izango dira. Ondoko gaue, asanbladako botea, Anetoak gozateko batetaren aurka behatuko da. Eta 14:00etan, bukarik herrikoia egingo dute.

Aurtengoa, frontonistekiko eta pilotako finalak jokatuiko dituzte Olederra kiroldegiko frontoian. Futboko finalak herri plazan, 23:00etan bertan parte hartze handia izaten duen danborrada izango

da. Aurten lehen aldiz, Remi Ayes-taran ihilbidetik pasako da bertan lore eskaintza eginez. Iraunkorrek txaranga izango dute berriekin Gauri bukaera emateko. Kantuki taldea izango da plazan.

Gaiterakoan, adin eta gustu guzietarako elkarlanean bete dituzte sei festa egunak. Aurtengo berrikuntza azpitimaragarrien artean daude: Santio egunean, Loatzo Musika Eskolako bandak egingo duen emanaldia plazan. Eta arratsotik lehenetik, Oinkari dantza taldearen eskutik antolatua den Euskal Jai Plazan. Bertan, Soka dantza, erromeria, aforia eta txaranga gaiterako, Oinkari - Korrontzik eskaintzen duen emanaldiaz gozatzeko aukera egingo da 00:00etan. Esan gabe ezin utzi Oinkari dantza taldeak, 25 urte bete dituzte aurten.

Astelehenean haurrentzako tailerak, erraldoi eta buruhandiak, Erretoboko finalak... eta egun guzti-ko konpartsak aterako dira kale-

tzeko. 18:00etan Aintzondo-Oarso, Orio eta Usurbilen arteko Giza proba doan izango da Maiztaren Lehena Plazan. 20:00etan bertik, Romi Ayestaran i urteurrenko emanaldia egingo dute bere izena daraman ibilbidean.

Trafiko mozketak
Festek iruten duten egun guzietan, gara bateko N-1 errepidean mozketak egingo dira. Gaur, 12:00etatik 00:00etara. Santio eta Santa Ana egunetan, egun guzian errepidea itxita egingo da. Astelehenean, irudia egingo da. Astelehenean eta ostegunean, 15:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara itxita egingo da.

tasungo da. Ostiralean, 10:00etan itxi eta 00:00etan irekiko dute. Eta azken egunean, 24 orduz itxita egingo da. Igandean, 07:00etan irekiko dute errepidea.

Zama lanak egin ahal izateko ere, ondutegia errepistatu egin behar da. Gaur, 08:00etatik 11:00etara egingo da hornetarako aukera. Igande eta astelehenean ezingo da egin. Asteartean, 08:00etatik 15:00etara egingo da zabalki. Astelehenean eta ostegunean, 08:00etatik 11:00etara eta ostiralean, 08:00etatik 10:00etara sartu ahal izango da errepidean. Larunbata, San Inazio eguna, itxita egingo da.

BRONTXILLO
Herriko Itxaskide
Tel.: 943 69 6823
Santio, 4 Villabona

Gozatzen Jaiak

EKO-TOLOSA
FRUTATEGIAK *ondo pasa ezin dute!*
www.ekotolosa.com
Tel.: 943 69 30 47 • Nagusia, 3 • Villabona

PROMOTIO
Autoarentzako kristagintza
Muntia, salmenta eta konponketak
Autos, furgonetak, kamioiak, autobusa
IBALONDO BAIIERA, 17 • 8, pabilloia • N-1 errepidea • IRURA
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

OGI-GOXO
Okindegi eta Gozotegia
Jai zoriontsuak pasa!
Kale Nagusia, 26
Tel.: 943 69 32 94
Billabona

SAHATSA
Beldurrik gabeko
Tel.: 943 69 22 22
Billabona

ILPEAINDEGIA - ESTETIKA
Maitia • 1 beheko
MILLABONA • Tel.: 943 696 282

Promotio berria- lberria-
Sustatzailea:
Epergain
Erikuntzak eta Promotioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuzo
Eraikuntzak S.A.
Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuzo.com

EIZMENDI
ZARMATZETA BIRLODENDA
Kirok gaitzak konponetako lantegia
Aukera handia eskopeta eta karburtoan
Berrio, 19 • Billabona
Tel.: 943 69 26 23 • Faxa: 943 69 30 24

ondo pasa!
Ertziola 3
Billabona
Tel.: 943 69 33 75

VILLABONAKO SANTIO JAIAK 2010, UZTAILAREN 24, 25, 26, 28, 29, 30 ETA 31

Gaur
•09:00. Pilet tiraketa, Izamten Loatzo Tiro elkartean eskutik.
•10:00. Xake jokoa Txistulari plazan, Bilibono Xake Joku elkartearen eskutik.
•12:00. Txupinazioa, Eresargi Abesbatzaren eskutik.
•12:15. Iratxikonk txaranga. (denak botelekara).
•12:30. Batelak Villabonako Ondoko gaite asanblada, Anetoak gozateko batetaren aurka.
•14:00. Bakari Herrikoia Plazan.
•16:30. Frontis herriko Txapelketaren finala, Olederra kiroldegiko frontoian. Behar-Zana elkartean eskutik.
•17:00. Pilota Eskua Binalako Herriko Txapelketaren finala, Olederra kiroldegiko frontoian. Behar-Zana elkartean eskutik.
•17:30. Erraldoi eta buruhandien iterea plazatik. Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariak.
•19:00. Futboto finala plazan.
•23:00. Danborrada, Remi Ayestaran ibilbidean (Iresekantza).
•00:00. Dantza plaza, Kantu taldearen.

Bihar, Santio Eguna
•08:00. Diana-kaleja, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin.
•09:00. Sokamuturra, Olederra kiroldegian. Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin.
•10:30. XXX. Herri Krosaj Altxeruko Plazatik, Zurbeltz Elkartean eskutik.
•11:00. Gaurko eta betiko jolasak. Haurrentzako jolasak: jolas erraldoi, ferria jolasak, trebetasun eta orkestra jolasak, malabarko jongo-zilokoi... Eta haurren 5 urte baino bikiagarako direnizat: psikomoztrikate elementuk.

etxotak, din-danak, txerriak, margotzeko gunak... Txistulari plazan.
•12:00. Meza Nagusia parrokian.
•12:00. Oinargi dantza taldearen dantza plaza.
•12:30. Udala konpositorearen urteroko bisita Santiago egotzira, Loatzo Musika Eskolako bostularen emanaldia plazan.
•13:15. Loatzo Musika Eskolako bandaren emanaldia plazan.
•17:00. Donostia (alde zaharra) Jostakun Herriaren bazar.
•17:30. Soka Dantza, Erreboten plazan. Oinkari dantza taldearen eskutik.
•19:00. Sagardo eta pintxo dastaketa.
•18:30. Erromeria, Izer eta Albitan trikitilariak.
•21:00. Aforia. Beldurrik gabeko Buruntzian.
•23:00. Ekkibit txaranga, aforia plaza.
•01:30. Korrontzi + Oinkari emanaldia.
•01:30. Erromeria, Kupela taldearen.
•19:00. Erromeria, Kupela taldearen.

Hilak 26, astelehena
•08:00. Diana-kaleja, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin.
•10:30. Haurrentzako tallerak: eskulan tallerak, aurpegi margotzea, marrikak, itxuragindia, globofobia... Txistulari plazan.
•11:00. Konpartsa herrikoia.
•11:30. Villabonako Erreboten Txapelketaren finala. Behar-Zana elkartean eskutik.
•14:00. Konpartsa herrikoia Txermingo kaxtelan.
•17:00. Erraldoi eta buruhandien iterea. Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariak.
•18:00. Konpartsa iterea Txermingo kaxtelan.
•18:30. Konpartsa herrikoien

emanaldia plazan.
•22:30. Mixel Urdangarin eta Eresargi Abesbatza plazan.
•00:00. Bide Batez taldearen dantza plaza.
•11:30. Haur jaiak. Apar festa Arnan.
•12:00. Herriko talderen erakusketak eskulan, egur lanketa eta pintura lanak. Maiztaren Lehena Plazan.
•12:00. Meza Nagusia parrokian.
•14:00. Jubilatuentzako Bazkaria Txermingoko kaxtelan aipian, ondoren, Txerna & Cristinarren dantza plaza.
•16:00. Mus Txapelketa herrikoia, Berdura plazan.
•16:00. Txirindulari lasterkeria Irnizti elkartean eskutik. Irteera eta helmuga Erroslan parian.
•17:00. Irnizti eta buruhandien iterea. Villabonako Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin plaza.
•18:00. Haurrentzako Euskarako Arnan.
•18:00. Palaz Binalako Herriko Txapelketaren finala. Behar-Zana pilotalekuan, Behar-Zana elkartean eskutik.
•19:30. Antzerkia: Prest Gaudel! Apeitxiko Larrikun antzerki taldea. Gurea Antzerki, Hutsunea Betez-er eskutik.
•20:00. Oihan Vegarekin disko festa plaza.
•22:00. Oinkari dantza eskolaren emanaldia, Olederra kiroldegian.
•00:00. Oihan Vegarekin disko festa plaza.
•00:00. Oihan Vegarekin disko festa plaza.

Hilak 27, larunbata
•08:00. Diana-kaleja, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin.
•09:00. Sokamuturra, Olederra kiroldegian. Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin plaza.
•10:15. Haurrentzako sokamuturra Olederra.
•11:00. Erreboten plazan: Hazparne - Villabona.
•11:30. Haur jolas parkeak Txistulari plazan.
•12:15. Aforia Bizi lehiaketaren sari banaketa plaza.
•12:30. Gaite Maillako II. Dantza Suelo Txapelketa plaza.
•18:00. San Inazio Giza Proba Maiztaren Lehena plaza.
•20:00. Remi Urteurrenko emanaldia, bere izena daraman ibilbidean. Remi Gogagokimena-rena Bidekudaren iterea. (Mozorro gau).
•23:00. Oinkari dantza asanbladaren Bidekudaren iterea. (Mozorro gau).
•00:00. Erroslaren erakusketak Ondo gaite asanbladaren eskutik eta bideo proiezioa.
•00:30. Dantza plaza Los Zopilotes Txinisa. Ondoren DJ Gaiter Txosna gunean.

MIGUEL-MARU
FRUTATEGIA
Santioak ondo pasa!
Kale Berria, 13 • BILLABONA
943 69 21 50

Santioak ondo pasa!
K/Berria, 15 • Villabona
Tel.: 943 69 22 19

Bidaia Agentzia bidaide
Enriobete, 6 beheko VILLABONA
943 69 26 93

MAITE JANARDINDIA
Kale Nagusia, 11 • Villabona
Tel.: 943 69 18 22

Itzalpe
Ezartzen ari diren
Festak ondo pasa!
Berrio, 29 • Billabona • Tel.: 943 69 06 23

FRUTATEGIA
Santioak ondo pasa!
Kale Berria, 13 • BILLABONA
943 69 21 50

Bidaia Agentzia bidaide
Enriobete, 6 beheko VILLABONA
943 69 26 93

Santioak ondo pasa!
K/Berria, 15 • Villabona
Tel.: 943 69 22 19

MAITE JANARDINDIA
Kale Nagusia, 11 • Villabona
Tel.: 943 69 18 22

Itzalpe
Ezartzen ari diren
Festak ondo pasa!
Berrio, 29 • Billabona • Tel.: 943 69 06 23

Begoni
Kortinok eta kojinkak ere jolasean ditugu
Kale Nagusia 43 • BELLABONA • Tel.: 943 69 30 12

Ero guzietako konponketak: karru, ohiokoi...
Kortinok eta kojinkak ere jolasean ditugu
Nagusia, 2 • Billabona
Tel.: 943 69 31 31
Faxa: 943 69 31 31

Itzalpe
Ezartzen ari diren
Festak ondo pasa!
Berrio, 29 • Billabona • Tel.: 943 69 06 23

Itzalpe
Ezartzen ari diren
Festak ondo pasa!
Berrio, 29 • Billabona • Tel.: 943 69 06 23

Itzalpe
Ezartzen ari diren
Festak ondo pasa!
Berrio, 29 • Billabona • Tel.: 943 69 06 23



HITZAREN opor aurreko azken ibilaldi honetan, Tolosaldetik kanpora egingo ditugun txangoekin jarraituz, Goierriko beste hiru herri ezagutuko ditugu; Beasain, Ormaiztegi eta Gabiria.

Beasain, Ormaiztegi eta Gabiriara

JOXEMI SAIZAR

Ibilaldiaren hasiera ezaguna da, aurretik ere Goierriin murgilduz Larraitzeko bueltan eta Ataungo txangoan egindakoak direlako.

Bidegorritik Itsasondoraino joan daiteke desnibel handirik pasatu gabe. Ordizia eta Beasainera joateko berdintsu jarraitzen du bideak. Beasain San Martin Loinaz misiolariaren eta trenak egiten dituzten herria izan da aspaldidanik. Eta azkenaldian ospetsu egin den Karlos Argiñano sukaldariarena ere bai. Igartzako monumentu multzoa (jauregia, errota, burdinola, zubia, Dolarea eta Belengo Andre Mariaren ermita) berri

dute azken urte hauetan eta merezi du bisita. Odolkiak famatu dituen herri dela ere ez dugu ahaztu behar.

Handik gertu Ormaiztegi topatuko dugu, bidegorri bat aprobeztatuz iritsi daiteke bertara. Tomas Zumalakarregi militar kar-

Beasaingo Igartzako monumentu multzoa berri dute eta merezi du ikusteak

lista da herriko pertsonaiarik nagusiena eta Gustave Eiffel arkitekto frantsesak XIX. mendean egin zuela zabaldu, baina benetan Lavaley ingeniari frantsesak egindako trenbiderako zubia da herriko gauzarik aipagarriena.

1863ean eraiki, Gerra Zibilean bota, 1940ean berreraiki eta 1996an erabiltzen utzi zuten eraikin hau, beste zubi berri bat egin zutelako. Monumentua izendatu zuten eta hor dirau. San Andres eliza eta Zumalakarregi museoa ere bisita daitezke herri honetan.

Aldapan gora Gabiriarraino

Handik aldapa gora hasten da eta Gabiriara iritsiko gara, Iñaki Murrúa bertsolaria eta Andoni Aizpuru telebista aurkezlearen herria. Herri txiki eta txukun hau nahiko





Gabiriako eliza eta plaza. JOXEMI SAIZAR

ezezaguna izango da Tolosaldeko jende gehienarentzat. Hauxe da bisitatzeko aukera, bere plaza, udaletxea eta eliza bisitatu.

Ibilaldi bilduma honetan jarri dugun 40-60 kilometroko mugan sartzeko, itzulera joandako bide beretik egin behar da.

Gabiriatik Zumarragarako errepidera jaitsiz egin daiteke al-daketatxoa. Sasoian dagoenak Gabiriatik Atagoiti mendatera igo eta Legazpi eta Zumarragatik barrena itzuli daitezke Tolosaldera. Lierni eta Mutiloa ezagutzeko aukera ere gertu dago, askoz gehiago ibili gabe.



H Hilberria



IÑIGO AZKUNE IRIBAR

Zure irriparra ez dugu inoiz ahaztuko
Maitasunez, Ibarako lagunak



IBARRAN
2010eko uztailearen 24an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle


ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

E Elkarrizketa

JOSE ANGEL IRIGARAY | Idazlea



HITZA

«Beste balore batzuk lantzen dituen hezkuntza bat behar da»

Villabona » Mintzolan ospatzen ari diren 'Aho bete hots' jardunaldietan hitzaldia eskainiko du gaur idazle iruindarrak.

ITZEA URKIZU

Jose Angel Irigarayk (Iruñea, 1942) medikuntza ikasketak egin zituen arren, literatura eta kulturaren inguruan ezagutu izan dugu beti. Ez Dok Amairu taldeko partaide izan zen, eta euskal kultura eta hizkuntzari loturiko hainbat ekimen eta elkarteren sustatzailea izan da. *Aho bete hots* jardunaldien baitan gaur emango duen hitzaldiaren harira, solasaldia izan dugu berarekin.

Zein ildo jarraituko du Mintzolan eskainiko duzun hitzaldia?

60. hamarkadan transmisioaren esparruan hasitako dinamikaren berri emateko prest egongo ote nintzen galdetu zidaten. Hori ere, nolabait, gaur egungo egoerari oso lotua dagoenez, handik datorren dinamikaren abiada, zantzuak eta gakoak zeintzuk diren jakitea oso garrantzizkoa da. Garai haietan, batetik arte plastikoetan Oteiza genuen, eta bere begirada berriak, modernoak, herri-tradizioari zegokion begirada garaikide hark eragin zuen mugimendu guztia. Arteak konplexuz betearen, bazterbideko zerbait. Beraz, horri begirada berri bat ekartzearrekin sekulako bultzada eman zion eta ate

bat zabaldu zuen; ez berak bakarrik, baina bera izan zen, behar bada, ezinbestekoena. Testuinguru horretan garatu ziren arte plastikoak; kantagintzari dagokionez Ez Dok Amairu mugimendua eta beste kantari batzuk; dantzan Urbeltz eta Argia; antzerkian Jarrai taldea, eta abar luze bat. Gure herrian garaikidea zen mugimendu bat sortzen ari zen lehenengoz, modernoa eta beste jarrera bat zuena; alde batetik oso sustraitua, herri-gintzari eta herri-tradizioari oso begira zegoelako, baina bestetik oso unibertsalak ziren haizeei begira. Aldi berean hemen bertan eta mundu mailan zegoen zerbait zen, eta horri buruz arituko naiz nire solasaldian.

Aipatu duzu gizartea konplexuz betearen zegoela. Ez Dok Amairuren eta aipaturiko dinamika haren guztia eraginez, euskal gizarteak ikuspuntu berri bat hartu al zuen kulturari begiratzeko?

Gizartea konplexuz betearen baino gehiago izututa zegoen, oso sakon, eta ez gainera gerraren ondoren gertatutakoagatik bakarrik. Aurretik ere gure herria nahiko baztertua, umiliatua eta beldurtua zen. Mugimendu haiek eman zu-

ten lehenbiziko taupada autoestimua izan zen: «gu ere bagara, guk ere badugu». Hau guztia, noski, sekulako bultzada izan zen, eta urrats handia eman zen herrigintzan. Gizartearen eta mugimendu hauen arteko konexioa berehala gertatu zen, bereziki kantagintzaren kasuan. Izan ere, kantagintza da herriarengana gehien hurbiltzen dena eta errazen sartzen dena.

Jorge Oteizaren izena aipatu duzu ezinbesteko bezala. Ez Dok Amairuren sorreran giltzarri izan zen bera, baina nondik zetorkion izena taldeari?

Azkuek Euskal Herriaren jakintza bilduman jasotako ipuin batean. *Ez dok amairu* esaldia agertzen da. Eta handik hartu zuen Oteizak. *San Martinen estutasuna* du izena ipuinak, eta Martin artzaren eta Deabruaren arteko elkarrizketa

«Ahozkotasuna komunikazio-bide berrietan txertatzea ezinbestekoa da»

bitxi bat kontatzen du kondairak. Martintxok deabruaren eskuetatik aske egon nahi badu, hamabi misterio handi esan beharko dizkio. Deabruak esaten dio: «Martintxo esaiak bat». «Martintxo esaiak bi». Eta Martinek dena zuzen erantzungo du. Hamabigarrenari

erantzutean, ordea, deabruak ematen dio bidea hamahirugarrenako: «Martintxo esaiak hamahiru». Eta Martintxok: «Ez dok amairu». Hamahirurik ez dago, eta deabruaren malefizioa gainditzeko du Martintxok. Taldea sortzen ari zela, lehendabiziko urratsetan, madarikazio eta zapalkuntza guztiak gainditzeko asmoz Oteizak proposatu zuen izena, eta gustatu eta hartu egin zen gure asmo eta ikuspegi baikor horrekin paralelismo bat sortu nahian.

Paradoxa dirudien arren, komunikazio moduak eta teknologia etengabe eboluzionatzen ari diren XXI. mende honetan, kultura eta hizkuntza transmititzeko ezinbesteko bidea da ahazkoaren erakartzea?

Bai. Ahozkoak, hain zaharra izaki, ematen du gaurko bideetatik baztertua egon beharko lukeela, eta alderantzizkoa gertatzen da. Hain zuzen ere, gaur egungo teknologian eta birtualitate horretan batekotasuna da nagusi, eta hau oso hurbil dago ahazkotasunetik. Eta hara non, ahazkotasunaren duen bat-batekotasun hori, batetik bestera une batean pasatzeko gaitasun hori, gaur egun ere teknologia berriei esker oso erraz lor daiteke. Zorionez, hain bide luzea duen ahazkotasunaren kultura, jarrera eta joera gaurko teknologia eta bide berrietan txerta dezakegu. Eta hori beharrezkoa izateaz gain,

nahitaezkoa ere bada, biziko bagara eta gure kulturak aurrera joko badu.

Honen harira, eskolak duela gutxira arte, idatziko ekoizpenari eman izan dio garrantziarik handiena, ahazkotasuna eta honen inguruko guztia bigarren maila batean utziz. Zein garrantzia du ahazkotasunak hizkuntza eta kultura baten didaktikan?

Eskola eredu hori oso mendebaldeko eredu da, memorian oinarriturikoa: idatzi, ikasi eta arrazionalizatu. Hori beharrezkoa bada ere, ez luke gaur egun arte bezala erdigunean egon beharko. Izan ere, gainerako arlo eta bideak baztertu ditu. Ahazkotasunarekin batera bizitari oso hurbiletik dagozkion beste gaitasun batzuk ezinbestekoak direla uste dut, eta hezkuntzan iraultza bat beharko litzatekeela. Beste balore batzuetan oinarrituagoa den hezkuntza sistema bat behar da, eta ez memorizistikan eta bide hertsia horietan soilik dabilen hezkuntza bat. Azken finean gaur egun hezkuntza oso polisemikoa, oso bide-anitza dela ikusten da eta horiek guztiak bide bakarrean bateratzea da egungo zailtasunetako bat. Lehen baziren kanon batzuk, eta kanon horietatik kanpo zegoena ez zen existitzen. Aldiz, gaur badugu halako aniztasun bat, eta horrek berak ahalbidetzen du beste modu bateko hezkuntza bat. Ahazkotasuna oso gertu dago hortik. Hitza neurri batean automatismoz egiten den zerbait da, beraz, irrazionaltasunarekin eta gure subkontzientziarekin lotzen gaitu. Eta horbertsolaritzak badu zeresan franko, hain justu martxan jartzen duelako beti zokoratua egon den mundu bat, eta mundu hori ere gaur egungo hezkuntza sisteman txertatuz joan beharko da.

Honek egungo gazteengan eragina du zalantzarik gabe. Bertsolaritza indarretan den arren, zaila da oro har gazteak ahazko kulturara erakartzea?

Gaur egun irudia eta itxura da nagusi, eta arrisksutua da aniztasun horren azalekoetan soilik gertatzea. Kultura geruza asko dituen arlo bat da eta bereizi egin beharko lirarteke, baina ez euren arteko harremana mozteko. Bertsolaritzak esaterako, ahazkotasunera jendea erakar dezake, baina teknika hartatuta egon beharko lukeela, eta alderantzizkoa gertatzen da. Hain zuzen ere, gaur egungo teknologian eta birtualitate horretan batekotasuna da nagusi, eta hau oso hurbil dago ahazkotasunetik. Eta hara non, ahazkotasunaren duen bat-batekotasun hori, batetik bestera une batean pasatzeko gaitasun hori, gaur egun ere teknologia berriei esker oso erraz lor daiteke. Zorionez, hain bide luzea duen ahazkotasunaren kultura, jarrera eta joera gaurko teknologia eta bide berrietan txerta dezakegu. Eta hori beharrezkoa izateaz gain,

Dena den, hau guztia ez da modu dogmatiko eta itxi batean egin behar; alderantziz, modu irekian egin behar da, eta irekia baldin bada nahitaez topegingo du beste kultur arlo askorekin.



22°
12°

GOIZA LAINOTUTA
ARRATS. EURIA
BEROENA 21°
HOTZENA 14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

'Bonberenea Sutan', musika baino gehiago

Tolosa » Bigarren aldiz antolatu dute jaialdia; irailaren 11n izango da bertako futbol zelaian jarriko duten eszenatokian.

ERREDAKZIOA

Bigarren urtez antolatu dute Bonbereneako *Bonberenea Sutan* jaialdia. Musika da ekimenaren ardatz nagusia, baina hori baino gehiago ere bada *Bonberenea Sutan*, musikaren bidez kultura bizitzeko eta zabaltzeko beste modu bat ere badela posible agerian uzten baitute, egiten dituzten ekimen guztietan bezalaxe.

«*Bonberenea Sutan* jaialdia urte guzti hauean kontzertuetan eta musika ekintza ezberdinetan arituen pertsona eta talde-sareak duen ospakizun bat da», argitu dute Bonbereneako zentzu honetan. Era berean, bizi duten egoera latza ere agerian utzi nahi izan dute, oraindik ere desaljoaren mamua gainean baitute: «etxearen desaljo edo birrintzearen aurkako gara, eta hori da printzipio batean Tolosako Udalaren ideia. Horrek bultzaturik, ekintza honek etxea eta bertan daudenen moralak indartu egingo ditu. Jaialdian ateratakoa etxea eta bere proiektuak aurrera eramateko izango da».

Horiek horrela, datorren irailaren 11n, sutan jarriko dute Tolosa. 19:30ean irekiko dituzte ateak eta kontzertuak 21:00etan hasiko dira. Anarik, Atom Rhumbak, Ama Sayk, Doctor Deseok eta Sexty Sexer taldeek eskainiko dituzte kontzertuak Bonberenearen proiektuarekin bat eginez. Txakapatata Brothers dj's-ekin bukatuko da jaia.

Era berean, nabarmentzekoa da



Orain bi urte egin zuten lehen aldiz 'Bonberenea Sutan'. HITZA

kontzertuak entzuteko eszenatokiko bikaina izango dela Bonbereneako futbol zelaian eta txozna ere izango dela, non bokatak ere salduko diren eta edaria merkeagoa izango den.

Aldarrikapenak

Gogoratu behar da, era berean, pasa diren San Joan jaietan kalejiraberezia egin zutela Bonbereneakoek, San Esteban auzoko Laskorain Goikoa proiektuaren baitan euren etxea kinka larrian ikusten dutelako. Udaletxearekin negoziatzen aritu izan dira, baina kalejirarekin «Udalaren benetako asmoak» salatu nahi izan zituzten eta euren etxea defendatu. Zentzu honetan, Udalarik «isiltsunak ez du ekarriko inongo onurarik eta hitz egiteko marko bat sortu» behar dela esan nahi izan diote. Izan ere, okupaziotik datozela eta desaljo asko bizitu izan dituztela ere gogoratu nahi izan dute. «2007an liburua ateratzerakoan Udalak ohiko bilkura batean idatzi bat onartu zuen, non esaten zen gure lana oso garrantzitsua dela herriarentzako eta baita kanpora begira ere. Guk hori ondo hartu genuen, baina esan behar dugu gure ustez

ez dagoela osatuta, eta falta zaion puntuetako bat dela garai hartan atxilotuak izan zirenei eta presoak jasan zituztenei hori onartu eta egoera legezatu beharko litzatekeela, eta barkamena eskatu behar bada, ba eskatu egin beharko lukezela. Ez gara beraietaz fidatzen, eta hitz egiteko ezinbestekoa da».

«Oinarrizko baldintzak»

Hau guztia kontutan hartuta arestian aipatutako marko hori sortzeko hiru dira «oinarrizko baldintzak»: «konfiantza maila irabazteko beti esan izan duguna berresten dugu berriz ere, hau da, prentsari ez filtratzea hitz egiten ari garen bitartean; gure hitza errespetatzea da bigarren puntua; eta azkenik esan nahi dugu kalejirarekin gure asmoa zer bait paketsua egitea zela, eta jendeak ondo pasatzea festa horrekin, eta esan behar dugu Udalak oztupoak besterik ez dituela jarri eta hori ez dela bidea. Guk kontua lasai nahi dugu, jendeak ezin baitu lanik egin presio horrekin».

Era berean, «bestelako zer bait ere eskatu nahi dugu, izan ere, herri honetan badago komunikabiderik gure lana nahastu nahi izan



Irailaren 11n izango da 'Sutanen' bigarren edizioa. Irudian kartela.

duena, eta hori ozen salatu nahi dugu». Bukatzeko, kalejirarekin batera webgunean Bonberenea proiektuari atxikimendua agertutako guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, 1.000 bat lagunei, hain zuzen, eta gogoratu oraindik ere atxikimendua agertzeko aukera dagoela.

» DATU ERABILGARRIAK

'Bonberenea Sutan'

- **Noiz.** Irailak 11, larunbata.
- **Non.** Bonbereneako futbol zelaian.
- **Taldeak.** Anari, Atom Rhumba, Ama Say, Doctor Deseo, Sexty Sexers eta bukatzeko Txakapatata Brothers Dj's.
- **Orduetgia.** 19:30ean irekiko dituzte ateak eta kontzertuak 21:00etan hasiko dira.
- **Sarrerak.** 15 euro balio dute. Tolosako Denak, Orbela eta Eguzki tabernetan eskuratu daitezke.

A Agenda

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

MUNDUAN DAGO ZURE ETORKIZUNA

elduaien

ONDO PASA JAIAK
www.elduaien.com

Villabonako festetan ere zuekin!

943 69 40 01
Erniobera, 19 • Villabona

Geltoki
fisioterapia zentroa
Eider Amondarain Larrinaga
Naiara Olaetxea Amonarriz

- Akupuntura
- Terapia eskuz
- Errehabilitazioa
- Gernu inkontinentzia
- Kirol masajea eta terapeutikoa
- Erditze aurreko prestaketa eta ondorengo tratamendua

Tel.: 943 249 692
Batxiller Zaldibia 12 behea
-Tolosako tren geltokiaren ondoan-

INFO
943 654 501
www.tolosaldeagaratzen.net
San Esteban 20
20400 TOLOSA

ERITZIAZUA ZARA? ERABIL EZAZU
TOLOSALDEAN NEGOZIO IDEIA BERRIAK SORTZEN LAGUNTZEKO SUSTAPEN KANPAINA

AURKEZPEN EPEA:
-Ekoizaren Telik Irailaren 30era edota aurrekontua agortu arte
-Enpresa martxan jartzeko epea 2010eko Abenduaren 31an amaitzen da

100€ NEGOZIO IDEIAREN BIDERAGARRITASUNA DEFENDITZEAGATIK

TOLOSALDEAN ENPRESA EKIMENA MARTXAN JARTZEKO 500€